

IKASTETXEA	BIURDANA		51 10 f
IZENBURUA	HANDIA IZANEN NAIZENEAN	MAILA	DBH1
IRAKASLEA	EUSKARA MINTEGIA	IKASGAIA	EUSKARA

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

TESTUA

Izenburua

Hemen testua eransteko tokia duzu

68

HANDIA IZANEN
NAIZENEAN

Handia izanen naizenean, ama,
eskailera bat eginen dut
zeruraino bezain gorakoa
izarrak biltzera joateko.

Boltsiloak izarrez eta
kometaz beterik jetsiko naiz,
eskolako lagunen artean
banan bana banatzera.

Baina zuri, amatxo,
ilargi betea ekarriko dizut
argi indarririk gastatu gabe
etxea argi dezazun.

Gaur zaharrago ikusi zaitut. Ilea urdinduta duzu eta
kopetan tximurrak. Buztarri berak gidatutako goldeak
lurrean egiten duen arrastoaren antzo, batera tximurtzen
eta luzatzen diren tximurrak. Begigainak urteen zoriz
etsita, ninien gainean pausatuak, haragi gorria heze.
Sudur fina, polita, tentea; noizbait izan zinen andereño
haren harrotasunezko arrasto bakarretakoa. Zure ezpainek
gogoratzen dizkirate berriz, muxu epelak, babesak.

Baina gaur ez dut eskailerarik ekarri. Nahita ere ezingo
nuke gaur izarririk harrapatu zeruan, ezta kometarik sartu
poltsikoan. Hogeita zortzi gau eman ditut zain, baina
ezin izan dizut ilargirik ekarri. Horregatik etorri naiz ni.
Banekielako benetan ikusi nahi zenuena ni neu nintzela.



JATORRIA	
EGILEA	UNAI ELORRIAGA
IZENBURUA	ISLADAK
ARGITALETXEA/Webgunea	ALFAGUARA/ZUBIA
URTEA	1997
ORRIALDEA (K)	103
ISBN	84-204-5617-9
TESTU-MOTA	
OINARRIA	INPRIMATUA
FORMATOA	JARRAIA
MOTA	NARRAZIOA
ERABILERA	Pribatua

ESTRATEGIAK

IRAKURRI BAINO LEHEN

- a) Irakurri aurretiko hipotesiak egitea.
Izenburutik abiatuta “handia izanen naizenean... izanen naiz...” testuak zeri buruz hitz egiten duen pentsatuko dute.

Horrez gain, igorlearen izenaz, irudiez, testuaren egituraz... baliatuko gara hipotesi gehiago egiteko (eskaileraren irudia, orrialde zenbakiak, ispilu moduan emandako izenburua...).

b) Era askotako aurretiko ezagutzak aktibatzea:

Genero eta egileari buruz.

Poesia eta prosaren arteko ezberdintasunak zein diren galdetu, egileari buruzko informazioarik ba ote duten, nondik ateratako testuak diren, prosazko testuak bakarrik zergatik duen igorlearen izena...

OHARRAK

Jatorrizko testua erabili behar da, ispilu moduan dagoena. Bertan, zenbait irudi ageri dira: eskailera bat eta izar batzuk. Horrez gain, orrialde zenbaketa, prosako testuaren idazlearen izena...

Bestetik, izenburua bi testuetan ageri da, baina poesian ispilua balitz bezala ematen du idazleak.

IRAKURRI BITARTEAN

d) Laburbiltze partzialak egitea:

Paragrafoka eta ahapaldika laburpenak egitea.

e) Informazio garrantzitsua markatzeko estrategia materialak: Ezezagunak diren hitzen azpimarraketa:

Tximur, golde, buztarri...

OHARRAK

IRAKURRI ONDOREN

f) Paratestuaren (eskailera) azterketa:

Eskailerak testuarekin duen lotura uztartzea.

Eskailerak bi testuren arteko lotura irudikatzen du: haurrak ama zoriontsu egin nahi du oparien bidez (68. orr.) eta helduak, ordea, bere burua oparizat ematen du (69. orr.). Irudia goitik behera doa, edo beste modu batean esanda, zerutik lurrera, ilargia agintzetik benetako amodioa ematera.

68. orrialdea

- Handia izango denean zeruraino ailegatzeko eta hor izarrak biltzeko eskailera bat egingo duela dio.

- Izarrak eta kometaz poltsikoak beteko dituela esaten du, gero eskolako lagun guztiei emateko.

- Amari, ordea, etxea argitzeko ilargia ekarriko diola dio.

69. orrialdea

- Denboraren poderioz ama zaharkiturik aurkitu du, beste garaietako edertasuna galdurik, baina oraindik sudurrean harrotasun puntu bat mantentzen du eta bere ezpainen musu epelen xamurtasuna gogorarazten diote.

- Gaur, heldua denean, ez du eskailerarik ekarri, bera ezer gabe etorri da, azken finean, bera delako amak nahi duena.

- g) Inferentziak egitea:
Familia arteko harremanak lantzea: Amari diogun maitasuna, zor diogun errespetua...

OHARRAK